

1 SODUPETARREN JAUREGIA

Angeluzuzeneko planta baten gainean eraikitako XVIII. mendeko etxetzarra da. Armarrri bat dauka, ondorengo hitzak jasotzen dituena: "SODUPETARRENA". Bere sotoak, "el Cerrillo" kanpoaldean dagoen beste tunel batekin elkartzen den lurazpiko lotura dauka, 60m takoa, gutxi gorabehera.



2 SAN JUAN DE ORTEGA BASELIZA

XVI. mende hasieran eraikia, gotiko atzeratu-koa da, eta oinplano errektangularra, abside hexagonalak, izar-itxurako ganga eta arku zorrotzak ditu. Barruko erretaula Martin de Arenalderena egina.



3 SORTZETZ GARBIA ELIZA

Eliza nagusia Sortzez Garbiari eskainia dago. Bi portada gorde ditu: gotiko isabelinoak bata, gaur jadanik erabiltzen ez dena; azkenaldiko barrokoak bestea. Bereziki interesgarria da arretaula nagusia, barroko estilokoa eta urrezko inkrustazioekin.



4 ITURRI ZAHARRA

Balio historiko eta kultural handia duen birgaitutako egitura arkitektonikoa da. Orain dela 400 urte baino gehiago eraikia, funtzionalidadearen arabera etapa ezberdinak bete ditu, Nabaridasko herriaren nortasun kolektiboaren parte nagusia bilakatuz.



5 SANTIAGO BASELIZA

Baseliza errenazentista, erretaulan Santiago azaltzen da zaldi gainean, eta inguruan garrantzi handikoa izan zen garai batean.




6 CASTEJON GAINA AZTARNATEGIA

Brontze garaia amaiarako herrixka da, haren goren unea 1. Burdin Aroan izan zelarik. Une hartan herri gotortu eta sendia zen, hiru itxura zituen defentsarako sistema batekin, eta gailur gunetik eta hegal handietatik, erreka-ko gunek laueta ailegatzeko den hirigintza mota egokituarekin. X.mendetik K.a V. menderarte jendea bizi izan da. Castejon Garaia ondare kultural bezala izendatu zuten, talde monumentalen kategorian, 2002ko urrian.



7 LOS COHETES ETXOLA

Txabolak, mahastiak gordetzeko etxolak, edota etxe txikiak, garai bateko nekazal edo abeltzain jarduerari edota frutagintzaren erreferente dira. Betetzen zuten funtzioa aldakorra zen: babes-lekuak, noizbehinkako logelak, aterpeak, zelai eta laborantzen zaintza, tresna biltegia, ea. 1933. urteko udal akta batean jasotzen den bezala, honako etxola hau "zuziriak botatzeko etxea" bezala definitzen da.



8 EL MONTE ARTEDERRETA

Laborantzen hedapenagatik desagertzeko arriskuan dagoen garai bateko Arabar Errioxako baso naturala izandako azken gotorlekutako bat da. Euskadiko LAGetan (Lurralde Antolamenduko Gidalerroak) "interesa naturaleko gune" bezala izendatu da, daukan balio ekologiko altuagatik. Baso-irila hau korredore natural baten funtzioak betetzen ditu, landare eta animalien populazioen arteko konektibitatearen mesedetan.



9 URMAELA

Nabaridasko La Laguna hezegunea, daukan balio natural edota kulturalagatik, interesa naturaleko babesgune bezala jasota dago Nabaridasko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrean. Drainatze-kanala dela eta, normalean lehorra egoten da, edota ur geruza fin bat besterik ez du.